Espediente zk.: 2025017 Harmonizatua
Kontratazioaren xedea: Espediente elektronikoak kudeatzeko SPRIren sistema mantendu, euskarria eman eta garatzeko laguntza teknikoko zerbitzuak emateko esparru-akordioa.
Dokumentua: Preskripzio teknikoen agiria.

1. Sarrera

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, ardura du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehunari zuzendutako hainbat laguntza-programa kudeatzeko.

Laguntza-programak kudeatzeko, SPRIk SPRIren Espediente Elektronikoak Kudeatzeko Sistema (SEEKS) du, SPRIren erantzukizuna diren laguntza-ildoetako espedienteen izapidetze automatizatua ahalbidetzen duten tresna-multzoak osatzen duena.

2. Kontratazioaren xedea

Kontratazioaren xedea da laguntza-ildo bakoitzaren moduluek osatzen duten egungo plataformaren mantentze-lan ebolutiboa egitea.

Lizitazioaren xedean sartuta dago lizitazioaren indarraldian zehar argitaratzen diren laguntza-programa berrien espedienteen kudeaketa elektronikoa errazten duten moduluak ere egitea.

3. Martxan jartzeko epea

Proiektuaren jarduerak esparru-akordio hau sinatu eta hurrengo egun baliodunean abiaraziko dira.

4. Garatuko behar diren jarduerak

Adjudikaziodunari eskatuko zaizkion zereginak SPRIren Espediente Elektronikoak Kudeatzeko Sistema garatu, mantendu, euskarria eman eta horren inguruko laguntza teknikoa emateko behar direnak izango dira:

- Mantentze-lan ebolutiboak

  SPRIren Espediente Elektronikoen Kudeaketa Sistemaren jardueraren bilakaera dela-eta behar diren aldaketak egitean datza, baita sistemaren funtzionamendu egokia bermatzen duten egokitzapenezko mantentze-lanak egitean ere.

- Modulu berriak egitea.

  Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Sailak (IKT) ezarritako jarraibide teknikoen arabera, laguntzaren espedienteak betetzen duen prozesu osoa erraztuko duten informatika-aplikazioak egitean datza, jada dauden garapenekin integratuz eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dagokion araudian jasotako ezaugarriak oinarri hartuz.

5. Zerbitzua egiteko izendatutako langileei eskatuko zaizkien baldintzak eta gaitasunak

Adjudikaziodunek honako betebehar hauek hartuko dituzte:

Izaera horretako zereginen inguruko ezagutza eta esperientzia nahikoa duen pertsona izendatzea, proiektuko buru eta SPRIko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Sailak (IKT) izendatutako pertsonarekin bitartekari gisa jardun dezan.

Kontratua betearazteko izendatutako langileek agiri hauetan deskribatutako lanak edo, bestela, horien antzekoak garatzeko gaitasun tekniko eta esperientzia nahikoa izan beharko dute, eta zehaztasun hauek bete beharko dituzte:

SPRIren Espedienteak Garatzeko Sistemaren **GARAPEN-INGURUNEA**ren deskribapena:

- HTML, CSS, "responsive" erako BOOTSRAP, jQuery, React tresnetan egindako frontend-a.
- .NET Framework, .NET Core (Microsoft) garapen-ingurunea
- SQL-Server (Microsoft) datu-basea
- Crystal Report
- WEB zerbitzuak: SOAP, REST, WEB API / OAuth 2.0
- DevOps: GIT, JENKINS, Sonar, Nexus

MODULU FUNTZIONALAK:

- SEEKS, SPRIren Espediente Elektronikoak Kudeatzeko Sistema.
- IES, SPRIren Erabiltzaileen Administrazio eta Kudeaketa Sistema.
- SPRIPLATEA, Eusko Jaurlaritzaren Platea Plataformarekin integratzeko middleware-a.
- SPRIINTEROP: Administrazio publikoen elkarreragintasun-zerbitzuekin integratzeko modulua.
- Sinadura elektronikoa: SPRIren sinadura elektronikorako modulua.
- Zeharkako moduluak: txostenen, prozeduren kudeaketarako eta abarretarako moduluak, garapenetako zenbait funtzio arindu, bateratu eta homogeneizatzeko.

6. Lantaldearen antolamendua

Enpresa lizitatzaileak bere proposamen teknikoan deskribatu beharko du agiri honen ondoriozko jarduerak egiteko izendatutako taldearen antolamendua (profilak), baita horien funtzioak ere.

Lantaldea gutxienez lau pertsonak osatuko dute, eta kide gehiago izatea (gehienez 7) modu positiboan baloratu ahalko da. Taldeak, gutxienez, jarraian adierazitako funtzio eta/edo profil profesional bakoitza beteko duen pertsona bat izan beharko du:

- Software garapeneko proiektuen burua (PB). Gutxienez 5 urteko esperientzia.
- Software aplikazioen analisiko teknikari aditua (analista). Gutxienez 5 urteko esperientzia.
- Software aplikazioen garapeneko teknikari espezialista (garatzailea). Gutxienez 3 urteko esperientzia.

- Software aplikazioen probak egiteko eta kalitatearen teknikari espezialista (kalitatea). Gutxienez 3 urteko esperientzia.

7. Ikuskapena, zerbitzuaren kontrola eta jarraipen-mekanismoak

7.1 Ikuskapena

Oinarritutako kontratu bakoitzerako proiekturako izendatutako pertsonen arduraldia hilero doituko da proiektuaren beharren arabera, SPRIk ikuskatuta, eta ez da inoiz oinarritutako kontratuaren balio zenbatetsia gainditukо.

7.2 Zerbitzuaren kontrola

SPRIren Teknologiaren eta Informazioaren Komunikazioa Sailak (IKT) garatutako lanak ikuskatuko ditu, eta kontratatutako lanak ondo garatzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat iritzitako azalpenak eta informazioa eskatu ahalko ditu.

Adjudikaziodunek SPRIk adierazitako ticketing aplikazioa erabili beharko dute, SEEKS plataforma erabili bitartean egon daitezkeen gorabehera guztiak ikuskatu eta ebazteko.

7.3 Jarraipen-mekanismoak

Lantaldeko proiektuen buruak arduraldi egonkorra eta nahikoa izango du, egingo diren jarduerak koordinatuko ditu, eta SPRIko IKT Sailak izendatutako pertsonarekin egongo den bitartekari nagusia izango da.

Epeei nahiz amaierako kalitateari dagokienez zehaztutako helburuak betetzen direla etengabe egiaztatzeko kontrol-mekanismo guztiak ezarri beharko dira. Horretarako, honako hau aurreikusi da:

- Jarraipen-bilerak: aldizka bilerak egingo dira, egin beharreko lanen betetze-maila eta bilakaera berrikusteko, beharrezkoa izanez gero izendatutako langileak aldatzeko, egin beharreko jardueren programazioak baliozkotzeko, etab.

- Kostuen egikaritzearen jarraipena egiteko bilerak.

- Egoera- eta aurrerapen-txostenak: horien bidez enpresa adjudikaziodunak SPRIri jakinaraziko dio zein den lanen, lortutako helburuen, gorabeheren eta abarren egoera.

8. Homologatutako adjudikaziodunen arteko eskaerak izapidetzea

Lizitazio honen ondoriozko eskaerak edo oinarritutako kontratuak honela izapidetuko dira:

SPRIk eskaintza-eskaera bidaliko die homologatutako lizitatzaile guztiei edo, bidezkoa bada, SPKLren 221.6a) artikuluaren arabera dagokien lizitatzaileei, eta, beharren arabera, bertan eskaintza-eskaera bakoitzari aplikatuko zaizkion adjudikazio-irizpideak zehaztuko ditu.

Eskaintza-eskaera horretan oinarritutako kontratuaren xedea, gehieneko balio zenbatetsia, eskaintza aurkezteko epemuga eta oinarritutako kontratuaren adjudikazioan aplikatuko diren irizpideak adieraziko dira.

Oinarritutako kontratuen lizitazioan eskainitako orduko tarifak (prezioa/ordu) edo prezioak, bidezkoa bada, ezingo ditu esparru-akordioaren lizitazioan adjudikaziodunek eskainitako gehieneko balioak gainditu.

Hala, SPRIk eskaintzarik ekonomikoenari edo, bidezkoa bada, beste alderdi batzuk baloratzen badira, eskaintza-eskaera bakoitzari aplikatu behar zaizkion irizpideen arabera baloraziorik onena lortu duenari adjudikatuko dio oinarritutako kontratua.

Entitate adjudikaziodun guztiek esparru-akordio honetatik gonbidatuta dauden oinarritutako kontratu bakoitzerako eskaintza aurkeztu beharko dute. Adjudikaziodunek kontratua iraun bitartean behin bakarrik egin ahalko diote uko eskaintza aurkezteari, berariaz arrazoia justifikatu ondoren. Oinarritutako kontratuaren zerbitzua emateko ezintasunaren justifikazioa egiaztagarria izan beharko da, eta behar bezala arrazoituko da.

Zigorrak:

SPRIk eskumena gordeko du zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak honako egoera hauetako baten pean erortzen denean zigorrak aplikatzeko:

- Berariaz eskaintza aurkezteari uko egitea, justifikatutako arrazoirik gabe.
- Gonbidatu den oinarritutako kontraturako eskaintza ez aurkeztea, justifikatutako arrazoirik gabe.
- Kontratuak iraun bitartean onartutako uko-egiteen kopurua gainditzea (1, behar bezala justifikatuta)

Aurreko paragrafoan zehaztutako edozein baldintza betetzen ez bada, zigorren kontzeptuan honako zenbateko hauetatik handiena duena aplikatuko da:

.- 2.000 €, edo kontratistari gonbidapena egin zaion oinarritutako kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1.

Era berean, bi ez-betetze badaude, SPRIk eskumena izango du hauste hori egin duen entitatearekin duen kontratua suntsiarazteko.

Kontratuaren indarraldian izapidetzen diren oinarritutako kontratuetarako eskaintzak aurkeztean, agiri honen eranskin gisa jaso den Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko da.

9. Zerbitzuaren mailak

9.1 Zerbitzuaren adierazleak

Honako hauetarako adierazleak zehaztu dira:

a) Aplikazioen euskarri teknikoko zerbitzua (kontsulta eta eskaera motako ticket-ak).
b) Zuzentzeko mantentze-lan zerbitzua (akats motako ticket-ak).
c) Mantentze-lan ebolutiboko eta garapen berriko zerbitzuak (garapenak aldatu eta berriak egiteko eskaerak).

Enpresa lizitatzaileek adierazle horiei buruzko txosten xehea aurkeztu beharko dute, bakoitzerako zehaztutako maiztasunean.

Era berean, adierazle bakoitzerako eremu jakin batzuk zehaztuko dira:

a) Kodea. Adierazlea identifikatzen duen kodea.
b) Deskribapena. Adierazlearen deskribapena.
c) Gehieneko epea. Adierazlea betetzeko denborazko muga.
d) Aldizkakotasuna. Adierazlea kalkulatzeko maiztasuna.
e) Balio objektiboa. Adierazlerako objektibo gisa ezarritako balioa.
f) Zigorra. Adierazleak ez betetzeak berekin zigorra dakarren.

Sailkatzeko irizpide garrantzitsua da premia edo larritasuna (lehentasuna) adieraztea, eragina baitu ebazteko behar diren epeen eta lotutako zerbitzu-mailako adierazleen gainean.

Honako hauek dira balioak:

Lehentasuna	Deskribapena
Oso premiazkoa	SPRIren negozioari edo irudiari larri eragiten dioten gorabeherak.
Premiazkoa	SPRIren negozioari edo irudiari eragiten ez dioten gorabeherak, baina zerbitzuaren xedearen aplikazioaren zati baten edo gehiagoren egikaritze arruntari eragiten diotenak (edo horrekin lotura duten beste batzuenari).
Ez premiazkoa	SPRIren negozioari edo irudiari eragiten ez dioten eta zerbitzuaren xedea den aplikazioaren funtzionamendu arruntari (edo horrekin lotuta dauden beste batzuenari) eragiten ez dieten lehentasun txiki eta ertaineko gorabeherak.

A) Aplikazioen euskarri teknikoko zerbitzua (kontsulta eta eskaera motako ticket-ak)

Kodea	Deskribapena	Gehieneko epea	Aldizkakotasuna	Balio objektiboa
ELED %	**ELED:** **E**uskarriaren eskaerari **L**ehen **E**rantzuna emateko **D**enbora **ELED %:** Euskarrirako berrikusitako eskaeren ehunekoa (zehaztutako aldian), ezarritako lehen erantzunerako gehieneko epea bete dutenak, berrikusitako eskaera guztien gainean (zehaztutako aldian).	8 ordu	Hilean behin	**> % 95**
EED %	**EED: E**uskarriaren eskaera **E**bazteko **D**enbora **EED %:** euskarrirako amaitutako eskaeren ehunekoa (zehaztutako aldian), ezarritako gehieneko ebazpen-epea bete dutenak, Amaitutako eskaera guztien gainean (zehaztutako aldian).	24 ordu	Hilean behi	**> % 95**

Orduak zerbitzu-prestaziorako ezarritako ordutegiaren barruan bakarrik zenbatuko dira.

A) Zuzentzeko mantentze-lan zerbitzua (akats motako ticket-ak)

Kodea	Deskribapena	Gehieneko epea	Aldizkakotasun	Balio

			a	objektiboa
OPAED %	**OPAED: O**so **P**remiazko **A**katsak **E**bazteko **D**enbora **OPAED %:** Oso Premiazko gisa sailkatutako akatsen artean, ezarritako gehieneko ebazpen-epean ebatzitakoen ehunekoa, amaitutako akats guztien gainean (zehaztutako aldian).	4 ordu	Hilean behin	**> % 98**
PEAED %	**PEAED: P**remiazkoak **E**z diren **A**katsak **E**bazteko **D**enbora **PEAED %:** Premiazko gisa sailkatutako akatsen artean, ezarritako gehieneko ebazpen-epean ebatzitakoen ehunekoa, amaitutako akats guztien gainean (zehaztutako aldian).	16 ordu	Hilean behin	**> % 96**
AAED %	**AAED: A**kats **A**rruntak **E**bazteko **D**enbora **AAED %:** Arrunt gisa sailkatutako akatsen artean, ezarritako gehieneko ebazpen-epean ebatzitakoen ehunekoa, amaitutako akats guztien gainean (zehaztutako aldian).	24 ordu	Hilean behin	**> % 95**

Orduak zerbitzu-prestaziorako ezarritako ordutegiaren barruan bakarrik zenbatuko dira.

A) Mantentze-lan ebolutiboko eta garapen berriko zerbitzua

Kodea	Deskribapena	Aldizkakotasuna	Gehieneko tasa
MA	**MA: M**antentze-lan ebolutiboko eta garapen berriko **A**katsen kopurua, fakturatutako 500 ordu bakoitzeko.	Hiru hilean behin	**< 10**

Hiru hilabeteko ezarpen- (ekoizpen-ingurunean argitaratzea) eta egonkortze-aldia ebaluatuko da.

9.2 Zerbitzuaren ezaugarriak

Zerbitzuaren ordutegia

Urteko aste guztietarako eskatzen den gutxieneko ordutegia, Bilboko jai-egunak kanpo, honako hau izango da:

- NEGUA (astelehenetik ostegunera)
  Aldiak: urtarrilaren 1etik ekainaren 1era arte eta irailaren 1etik abenduaren 31ra.
  Ordutegia: 08:30etik 17:30era.

- NEGUA (ostiralak) eta UDA
  Aldia: ekainaren 1etik abuztuaren 31ra arte eta urteko ostiral guztiak.
  Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:30etik 15:00etara.

Zigorrak

Ezarritako zerbitzu-mailen gainean dauden desbideratzeak egiaztatuko dira, eta jarraian ezarritako baldintzetan zigorrak ezarriko dira:

A) Aplikazioen euskarri teknikoko zerbitzua (kontsulta eta eskaera motako ticket-ak).

- ELED %-ren desbideratzea, ehunekotan (ELED %-ren balio objektiboa –% 95– ken benetako ehuneko balioa):
  - Desbideratzea <= % 0: Zigorrik gabe.
  - % 0 > Desbideratzea <= % 5: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
  - Desbideratzea > % 5: Zigorra % 5.

- EED %-ren desbideratzea, ehunekotan (EED %-ren balio objektiboa –% 95– ken benetako ehuneko balioa):
  - Desbideratzea <= % 0: Zigorrik gabe.
  - % 0 > Desbideratzea <= % 5: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
  - Desbideratzea > % 5: Zigorra % 5.

Ehunekoa hileroko fakturazioaren zenbatekoari (aplikazioko euskarri teknikoko zerbitzuetarako fakturatutako zenbatekoa) aplikatuko zaio (gehienez % 10). Hurrengo hilabeteko fakturan aplikatuko da, SPRIk ikuskatu eta berretsi ondoren; arrazoia justifikatutzat jotzen badu, SPRIk zigorretik salbuestea erabaki ahalko du.

Aplikazioen euskarri teknikoko zerbitzurako aplikazioaren adibidea: Demagun honako egoera hau dugula otsailean (datuak ez dira errealak):

- 2 adierazle ezarri dira:
  - % ELED, eta ezarritako helburua % 95ekoa da.
  - % EED, eta ezarritako helburua % 95ekoa da.
- Lortutako balioa, adibidez:
  - ELED %: % 97.
  - EED %: % 93.

Ikus dezakegunez, EED %-n ez da helburua lortu, eta EED % adierazlean % 2ko desbideratzea egon da. Hortaz, zigorraren % aplikazioen euskarri teknikorako zerbitzuaren otsailean fakturatutako zenbatekoaren %2koa izango da. Martxoan aurkeztutako fakturari kenduko litzaioke, SPRIk ikuskatu eta berretsi ondoren.

B) Zuzentzeko mantentze-lan zerbitzua (akats motako ticket-ak)

- OPAED %-ren desbideratzea, ehunekotan (OPAED %-ren balio objektiboa –% 98– ken benetako ehuneko balioa):
  - Desbideratzea <= % 0: Zigorrik gabe.
  - % 0 > Desbideratzea <= % 5: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
  - Desbideratzea > % 5: Zigorra % 5.

- PEAED %-ren desbideratzea, ehunekotan (PEAED %-ren balio objektiboa –% 96– ken benetako ehuneko balioa):
  - Desbideratzea <= % 0: Zigorrik gabe.
  - % 0 > Desbideratzea <= % 5: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
  - Desbideratzea > % 5: Zigorra % 5.

- AAED %-ren desbideratzea, ehunekotan (AAED %-ren balio objektiboa –% 95– ken benetako ehuneko balioa):
  - Desbideratzea <= % 0: Zigorrik gabe.
  - % 0 > Desbideratzea <= % 5: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
  - Desbideratzea > % 5: Zigorra % 5.

Ehunekoa hileroko fakturazioaren zenbatekoari (hau da, zuzentzeko mantentze-lanen zerbitzuetarako fakturatutako zenbatekoa) aplikatuko zaio (gehienez % 15). Hurrengo hilabeteko fakturan aplikatuko da, SPRIk ikuskatu eta berretsi ondoren; arrazoia justifikatutzat jotzen badu, SPRIk zigorretik salbuestea erabaki ahalko du.

Zuzentzeko mantentze-lan zerbitzurako aplikazioaren adibidea: Demagun honako egoera hau dugula otsailean (datuak ez dira errealak):

- 3 adierazle ezarri dira:
  - % ELED, eta ezarritako helburua % 98koa da.
  - % EED, eta ezarritako helburua % 96koa da.
  - % AAED, eta ezarritako helburua % 95ekoa da.
- Lortutako balioa, adibidez:
  - OPAED %: % 97
  - PEAED %: % 90
  - AAED %: % 94

Ikus dezakegun moduan, ez da helburua lortu adierazle batean ere. Desbideratzeak, hurrenez hurren, % 1ekoa, % 6koa eta % 1ekoa dira. Hortaz, zigorraren % zuzentzeko mantentze-lan zerbitzuan otsailean fakturatutako zenbatekoaren %7koa izango da. Martxoan aurkeztutako fakturari kenduko litzaioke, SPRIk ikuskatu eta berretsi ondoren.

C) Mantentze-lan ebolutiboko eta garapen berriko zerbitzuak (garapenak aldatu eta berriak egiteko eskaerak).

Ehuneko desbideratze onargarria % 2koa denez (10 akats 500 ordutan), zigorra kalkulatzeko formula hau aplikatuko da:

- Desbideratzea <= % 2: Zigorrik gabe.
- % 2 > Desbideratzea <= % 10: Desbideratzearen berdina den ehunekoko zigorra.
- Desbideratzea > % 10: Zigorra % 10.

Ehunekoa gehienez mantentze-lan ebolutiboaren eta garapen berriaren zerbitzuko hiru hileko zenbatekoaren % 10ekoa izango da, adierazlearen datuak lortu diren hilabeteetarako. . Hurrengo hilabeteko fakturan aplikatuko da, SPRIk ikuskatu eta

berretsi ondoren; arrazoia justifikatutzat jotzen badu, SPRIk zigorretik salbuestea erabaki ahalko du.

SPRIk zigorra aplikatu baino lehenago dagoeneko ordainketa egin badu, enpresa kontratatuak SPRIri zigorraren zenbatekoa itzuli beharko dio.

ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

…… jaunak/andreak (NAN zenbakia: ……), bere izenean edo ……(r)en (*esparru-akordiorako hautatutakoa*) (IFZ zenbakia: ……) izenean, ……(e)rako oinarritutako kontratuari dagokionez,

ADIERAZTEN DUT:

Ordezkatzen dudan pertsonak, entitateak edo enpresak bere eskaintza modu independentean prestatu duela, eta ez duela inolako harremana izan esparru-akordioan hautatutako gainerako entitateekin, eta ez du horiekin inolako itunik sinatu prezioei, eskaintzen aurkezpenari edo beste baldintza batzuei buruz.

.....(e)n, 20….(e)ko .....(a)ren ……(e)(a)n

Sinadura: